

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

OSASUN SAILA

1711

HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua 2018ko urtarrilaren 12koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, A kategoriako arrautza ez industrialetarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dituena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako hutsak aurkitu dira Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko urtarrilaren 12ko Aginduaren testuan (2018ko urtarrilaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 19. zk.). Agindu horren bitartez, A kategoriako arrautza ez industrialetarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dira. Horrenbestez, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

«Ekoizpen eta paketatze zentroen baldintza higienikoak eta sanitarioak» apartatuko A puntuan (Ekoizpen-zentroen baldintzak) [2018/436 (11/3) orrialdea] eta 19. puntuko («Autokontrolerako sistema») A apartatuan («Produkzio-zentroetan») [2018/436 (11/10) orrialdea],

honela dio:

«350 oilora arteko ustiategiak»

baina honela esan behar du:

«50 eta 350 oilo bitarteko ustiategiak».

«Ekoizpen eta paketatze zentroen baldintza higienikoak eta sanitarioak» apartatuko A puntuan [2018/436 (11/3) orrialdea] eta 19. puntuko («Autokontrolerako sistema») A apartatuan («Produkzio-zentroetan») [2018/436 (11/10) orrialdea], «Salmonella enteritidis» y «Salmonella typhimurium» letra etzanez idatzi behar dira.

2018/436 (11/11) orrialdean, dokumentuaren amaierako taulan, zenbait gelaxka hutsik ageri dira, eta, hortaz, honako honekin ordeztu behar da:

2018ko apirilaren 3a, asteartea

Horniduraren jatorria	Parametro analitikoa	Kontrol-maiztasuna
Norbere depositua duen udal-sarea	Hondar-kloro askea eta konbinatua	Egunero
Norbere hornidura	Hondar-kloro askea eta konbinatua	Egunero
	<ul style="list-style-type: none"> – Parametro Kimikoak: Antimonioa, Arsenikoa, Kadmioa, Zianuroa, Kobrea, Kromoa, Fluorra, Merkurioa, Nikela, Nitratoak, Nitritoak, Beruna, Selenioa. – Parametro Mikrobiologikoak: <i>E. coli</i>, enterokokoak eta <i>Cl. Prefringens</i>-ak. – Parametro adierazleak: Bakteria koliformeak, 22.º Ctara dauden kolonien kontaketa, Aluminioa, Amonioa, Hondar-kloro konbinatua, Hondar-kloro askea, Kloruroa, Kolorea, Eroankortasuna, Burdina, Manganesoa, Usaina, Ph, Zaporea, Sodioa, Uhertasuna. 	Jardueraren hasieran, erabateko azterketa egingo da ura lehen aldiz erabili aurretik.
	<ul style="list-style-type: none"> – Usaina, Uhertasuna, Kolorea, Eroankortasuna, Ph, Amonioa, E. coli, Bakteria koliformeak, Hondar-kloro askea. 	Urtero